



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2016ko uztailaren 26a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehen

HASTEKO ORDUA: 20:15 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:40

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Miriam Uranga Egurtza eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Jose Angel Iparraguirre Alberdi zinegotziak (Orain) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren akta hauen zirriborroak: 2016ko martxoaren 8ko, apirilaren 5eko eta ekainaren 27ko ezohiko bilkuretakoak; eta 2016ko maiatzaren 31ko ohiko bilkurakoa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, udal kiroldegia erabiltzeko tasen ordenantza fiskalaren aldaketa.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 5/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteak; kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, EH Bildu eta PSE-EE-PSOE talde politikoek aurkeztutako mozioa, kaleratzeen, pobreziaren eta desberdintasunaren kontrako neurriak hartzeari buruz.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Udalbatzarreko gai-zerrenda irakurtzen hasi aurretik, alkateak hartzen du hitza eta bertaratuei proposatzen die gai-zerrendako 4. gaia erretiratzea, EH Bildu eta PSE-EE-PSOE talde politikoek aurkeztu duten mozioa arretaz aztertu ahal izateko eta hurrengo udalbatzarrean behar bezala eztabaidatu ahal izateko.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak ez daukala inolako arazorik mozioa udalbatzar honetan onartzeko; baina zalantzan jartzen duela EAJk mozioa onartuko ote duen, kontuan hartuta beste udaletxe batzuetan eta Gipuzkoako Foru Aldundian nola jokatu duten orain arte, beti mozio hori onartzearen kontra bozkatu dute-eta.

Alkateak erantzuten dio ezin duela alde aurretik esan zein izango den bere talde politikoaren botoa; baina ezin dela zalantzan jarri Orioko Udalak laguntza emango diola behar duen guztian etxetik bota nahi duten oriotarrari, mozio hori azkenean onartu ala ez.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA alkatearen proposamena, udalbatzarraren gai-zerrendatik 4. gaia erretiratzeko.



Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN AKTA HAUEN ZIRRIBORROAK: 2016KO MARTXOAREN 8KO, APIRILAREN 5EKO ETA EKAINAREN 27KO EZOHICO BILKURETAKOAK; ETA 2016KO MAIATZAREN 31KO OHIKO BILKURAKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu), Ubegun (EH Bildu) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAIIKA ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Uranga (Orain), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

ONARTZEA udalbatzarraren akta hauek: 2016ko martxoaren 8ko, apirilaren 5eko eta ekainaren 27ko ezohiko bilkuretakoak; eta 2016ko maiatzaren 31ko ohiko bilkurakoa.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL KIROLDEGIA ERABILTZEKO TASEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailean diktaminatu zen 2016ko uztailaren 22an.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2016ko uztailaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu), Ubegun (EH Bildu), Uranga (Orain) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**. Abstentzio botoak: Zaldua (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ) eta Bello (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA udal kiroldegia erabiltzeko tasen ordenantza fiskalaren aldaketa.

2.- Erabaki hau eta hasitako espedientea **JENDAURREAN JARTZEA**, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduari 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiari argitaratuz, honako arauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.



b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak onartutzat joko dira behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Alkateak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela, oraindik bukatu gabe dagoelako udal kiroldegia kontzesioa duen BPXPORT enpresaren fiskalizazioa, 2014. urteari dagokiona; eta, beraz, ez dakigulako modu fidagarrian zein den haren balantze ekonomikoa. Nolanahi ere, adierazten du bere talde politikoa ez dagoela udal kiroldegiko jardueren tarifak, orokorrean, %2 igotzearen kontra, baina abstentzio botoa eman dutela ez dauzkatelako eskura datu ekonomiko fidagarriak.

3.-ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 5/2016 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 5/2016 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 82.025 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2016ko uztailaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2016ko aurrekontuari dagokion 5/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 82.025 euroko zenbatekoa du.



2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Kreditua aldatzeko espediente honen eragin ekonomikoa aintzakotzat hartuta, udalbatzarrak, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2016ko uztailaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 1/2016 zenbakidun hainbat urtetarako kreditua, udal kontu-hartzailetzak proposatutako terminotan, Ortzaika auzoan urbanizazio-lanak egiteko okupatutako lurren erosketa finantzatzeko; zenbatekoa, guztira, 116.180 eurokoa da eta honela banatuko da urtez urte:

2016ko ekitaldi ekonomikoa: 71.200 euro, gaur egungo Diruzaintzako gerakinaren kargura.

2017ko ekitaldi ekonomikoa: 22.490 euro, urte horretako aurrekontu propioaren kargura.

2018ko ekitaldi ekonomikoa: 22.490 euro, urte horretako aurrekontu propioaren kargura.



5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Gotzon Igoa zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak eskatzen duela berehala eratzeko berriz hondakinen mahaia eta gogorarazten du behin eta berriz egin dutela eskari hori; Hirigintza, Ingurumena eta Gizarte Ongizatea batzorde informatzailearen buru Angel del Hoyok ezetz erantzuten dio eskariari.

Gotzon Igoa zinegotziak, bestalde, alkateari eskatzen dio udaletxeko fatxadako kartelean jarrita dagoen hondakinen birziklatzearen datua eguneratzeko. Alkateak erantzuten dio ez dela eguneratu, ez delako izan adierazteko moduko aldaketarik datu horretan.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei, uda ona opa die eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,